



ELAren iritzia EAEko Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren akordioei buruz

2020ko otsailaren 11

Otsailaren 3an argitara eman ziren EAEko delako Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren (ESM) "akordioak"; mahaian parte hartzen dute Eusko Jaurlaritzak, Confedebaskek, CCOO eta UGTk. Sindikatuok %18,4 eta %10,3ko ordezkariak dute; aldiz, ELA eta LABek, %41,4 eta %19,6; beraz, agerikoa da Mahai honetako hanka sindikalak ez daukala ordezkariak legitimatzerik.

Aurkeztutako dokumentua osatzen duten 29 orrialdeak hainbat gairen inguruko hausnarketa eta dibagazioa dira, besteak beste kontziliazioa, berdintasuna, enplegua, lan prestakuntza eta orientazioa, prebentzioa eta trantsizio justua. Guztien abiapuntu irakurketa partzialak dira (areago, testuan bertan aitortzen denez, zenbait kasutan baita ebatzi gabeko edo porrot egindako praktika edo neurriak ere, heldu beharreko errealitateari buruzko datu zehatzik gabeak), baina halere ESMak gomendioak ematen ditu edota oro har porrot egindako errezetak proposatzen ditu; beti ere zentzu berarekin, egungo politika neoliberalak babestea.

Gomendioak aipatu ditugu, dokumentuak ez baitu erabaki zehatz eta eragingarri bat ere jaso. Elkarrizketa Sozialaren Mahaia erabat hutsala da. Esan daiteke partaideen arabera izan omen diren 25 bileren buruan ondorio bakarra atera dutela: Hitz eman dute guztiari buruz Mahaian mintzatzen jarraitzea. Hau da, Mahaiaren jarraipena bera bihurtu da helburua, egungo politiken iraupena bermatze aldera.

Haatik, akordioen mamia oso atzerakoia da:

Berdintasunari dagokionez (1, 2 eta 3 Dokumentuak)

Kontziliazio "arduratsua" aipatzen da, hots, "pertsonek beharrezkoak diren enpresen eta hauen ekoizpen prozesuen arteko akordio eta transakzioak". Beraz, langileen eskubidea enpresen interesen menpe jartzen da. Gainera, esaten da neurriak artikulatuko direla "beti ere elkarrizketaren eta negoziazio kolektiboaren bitartez". Hau oso larria da, legezko eskubideetan aurrera egin behar izan behar den itzuri egiten baita; eskubide horiek errealak izan behar dira, beste inolako baldintzaren pean egon gabe.

2. akordioa izenetik beretik hasita onartu ezinezkoa da: *"Llamamiento y declaración conjunta sobre la superación de los sesgos vocacionales de género entre mujeres y hombres como un paso cualitativo hacia la igualdad"*.

Honek esan nahi du patronalaren tesia ontzat ematen dela. Zubiaurrek Greba Orokorraren aurretik gutxi gorabehera esan zuen soldata arrakalaren errua emakumeek dutela, ez dutelako ikasketa egokia hautatzen. Erabilitako hitzak ere jasanezinak dira.

Berdintasun plan piloto bat proposatzen da, baina 2020ra aurreratzen du edonola ere legean ezarritakoa; asmo handikoa omen da "gutxienez 10 enpresetan" bultzatuko delako. Hori dena, berdintasun batzordeak sortuko direlarik, diru publikoz lagundua.

Enpleguari dagokionez

Abiatzeko esaten dute Enpleguaren Euskal Estrategiaren baitako hainbat programa zalantzazkoa dela, eta hitzez hitz “ebaluaketa negatiboa” izan dutela. Halaber, aipatzen da jardunbide batzuk “oso orokorrak” direla, “oso lausoak”; “aski kontratatutako daturik gabeak”; lan kontratazioaren jarraipen batzordea ez dela “orain arte benetan funtzionatzen hasi”; adinari dagokionez, ez dutela “behar adina denbora izan behar besteko sakontasunaz heltzeko”. Halere, ausartzen dira proposatzera, edo sasi-neurriak orientatzera, zeintzuk beti bezala “baliabide eta ahalegin” gehiago eskatzen duten.

Eta zertaz ari dira? Bada, lehenago ere erabili baina kale egin duten formulei buruz: esaterako, kontratateko pizgarriak. Ez da irakurketarik egiten prekaritateaz, aldi baterako enpleguaz, kostuez, prestakuntzan dagoen inbertsio gabeziak... guztia agortzen da kualifikazio egoki ez horretan.

Hau guztia are larriagoa da arlo publikoko enpleguari buruzko atalean. Aitortzen da programa batzuk huts egin dutela (gazte talentudunen itzulera, errelebo kontratuaren erabilera urria) eta ez da aipatzen benetako arazorik (aldi baterako enplegua, azpikontratazioa...). Noski, beste behin ere iradokitzen da Enplegu publikoaren Behatoki baten sorrera, errealitatea behatzen jarraitzeko, hau guztiontzat aski ezaguna izanagatik; benetan, ez da eroso eta ez dago hari heltzeko interesik.

Prebentzioari dagokionez

Kultura Prebentiboaren Euskal Behatokia sortzea proposatzen da, informazioa biltzeko, diagnostikoak egin eta plan espezifikoak diseinatzeko. Orduan, Osalan zertarako da?

Honek ere aurrekontuetan sail berezi bat eskatuko du. Uste genuen garai bateko praktikak baztertu zirela, baina ESMko kideak horrelakoen zaleak dira.

Ez dago ezer prebentzioari eta lan osasunari buruzko benetako arazoei heltzeaz. Zer garrantzi eta eragin du ESMarentzat, kultura prebentibotik hara, kontzientziazioak eta sentsibilizazioak, prekaritateak, aldi baterako enpleguak, istripuek?

4.0 industriari buruz

Hemen ere gizarte-itun bat egin behar omen da.

Horrenbestez, 9 agirien laburpena da ez dagoela neurri konkreturik; aldiz, bai bake soziala eta finantziazioa.

ONDORIOAK

Elkarrizketa Sozialeko Mahaian iritsitako “akordioen” balorazioa oso negatiboa da, hala mamiei dagokienez, nola gizarteari ematen zaion mezuari buruz.

Dokumentu hauek hutsalak dira, ez dute neurri konkreturik jasotzen. Ez da inolako eskubideren aitortzan aurrerapausorik ematen, ez eta berdintasunean, enpleguan edo prestakuntzan ere; ez dago ezer berririk lan osasunean edota “4.0 industria” izen arranditsua eman zaion horretan. Areago, kontrakoa: diskurtsorik atzerakoiena ontzat ematen da, esaterako emakumeei leporatzen zaienean ikasketak gaizki aukeratzea.

Beraz, elkarrizketa soziala agerian geratu da: Oskol huts bat da, eta bere iraupena bihurtzen da berezko helburu.

Akordioaren edukiek ez dute zalantzan jartzen gobernuak aplikatutako politikarik, edota patronalaren praktikarik, honek prekaritatea muturrera eraman nahi duenean etekinak puzteko. Eta hau egiten du emakumeen eskubideen lepotik, langileen bizitza eta osasunaren lepotik. Saldu nahi izatea berdintasunean, lan osasunean edota enpleguan adostasuna dagoela langileen eta patronalaren artean lantokietan etengabe garatzen ari den gatazka saihestea da. Bide batez, baita patronalari eta gobernuari aurpegia garbitzea ere.

Elkarrizketa sozial hutsalak gizartea desmobilizatu nahi du. ELAk berriro dio asmatu egin duela mamirik gabeko mahaietan parte ez hartzeko erabakiarekin. Ez gaude ados aplikatzen diren politikekin eta patronalaren estrategiak salatuko ditugu aurrerantzean ere. Ez diogu gizarteari irudi faltsurik salduko, hots, arazoak honelako Mahaietan konponduko direla.

Gure eredu sindikala, langile gehienek babesa jaso duena, bestelako logika baten baitan dago: interesen konfrontazioa eta kontrabotere sindikalaren eraikuntza. Horixe da bide bakarra indar-erlazioa langile-klasearen alde jartzeko. Eta Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren emaitzek arrazoia ematen digute.

Honelako antzezpenetan parte hartzeko gonbiteen aurrean ELAk adierazi nahi du deitzen gaituztenek ez gaituztela haietan nahi, ez gaituztela espero. Eta ez gara antzerki horretan agertuko.

Gure alternatibari eutsiko diogu lan- eta gizarte-eskubideen aitortzan aurrera egiteko: proposamenak, hauen sozializazioa eta mobilizazioa, urtarrilaren 30eko greba orokorrean egin dugun moduan.